

Noticias de Navarra

Diario de Noticias de Navarra. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Gizarteari kritika, eszenatokitik

barañaingo alaitz bhi artistikoko ikasleek 'psinkomunikatuak' musikala aurkeztuko dute gaur auditorioan.

Testua Miren Mindegia. Argazkia Javier Bergasa - Viernes, 12 de Abril de 2019 - Actualizado a las 06:02h



'Psinkomunikatuak' antzezlanean Alaitz BHIko 57 ikaslek parte hartzen dute.

Lan prozesu luzea izan da, ikasturte osokoa, eztabaida, izerdi eta burukomin ugari ere ekarri izan duena. Baina merezi izan du. Gaur, azkenik, Barañaingo Auditorioko eszenatokian erakutsiko dute Alaitz Institutuko Arte Eseniko, Musika eta Dantzako Batxilergoko lehenengo mailako ikasleek urtean zehar sortutako antzezan musikala: *Psinkomunikatuak*, musika, dantza eta antzerkia uztartu duen sorkuntza kolektiboaren emaitza. Hitzordua arratsaldeko 20.30erako ezarrita dago.

Musikalean, ikasleek erotetxe baten antza duen mikrokosmos berezi batera eramango dute publikoa. Aritz Estibezekin batera zuzendaritza lanetan aritu den Ismael Yagüe azaldu bezala, “zentro arraro bat da” erotetxe hau, “jende berezia biltzen duena”. “Erotetxe hori, gure gizartearen alegoria bat da, eta denetarik aurkitu dezakegu bertan. Arazo desberdinak sortzen dira eta, modu sarkastikoan, gizarteari kritika bat egiten zaio. Pertsonaien artean denetatik dago, onak diruditenak eta azkenean alde beltz bat badaukatenak eta alderantziz, gure egunerokoan ere aurkitu ditzakegunak”.

Obrak, izan ere, gazteek dituzten kezka eta ideietatik sortu da. Zortzi istoriotan egituratuta, *Psinkomunikatuak*-en anitzak dira lantzen diren gaiak: kontrol mediatiko eta politikoa, gizartearen hipokresia, transexualitatea, fanatismoa, totalitarismoa, aniztasun fisikoaren aurrean dauden jarrerak, utzikeria, sare sozialetako itxurakeria... Yagüeren iritziz, gazteek “kezka asko dituztela ikusten da, gauzak aldatzeko gogoia badaukatela baina askotan nondik jo ere ez dakitela”. Sorkuntza prozesua, biltzen duen ikasle kopurua kontutan hartuta, “konplexua” izan dela adierazi du irakasleak, halaber. Denetara, 57 ikasleek parte hartu dute Praktika Eszenikoa ikasgaiaren baitan garatu den proiektuan. Eztabaidak, ideia zaparradak eta inprobisazio saioak uztartuz, ideia batzutatik abiatu eta beste batzuk baztertzea eskatu duen prozesua izan da. “Ikasleek dauzkaten gaitasunak aprobetxatzen saiatzen gara, baina guztientzat tartetxoia egitea eta eszenatokian bakoitzak bere unea izan dezan lortzea zaila izaten da”.

Ikastetxeak horrelako ikuskizun bat sortzeko beharrezkoak diren azpiegituren falta gehitu behar zaio horri, irakasleak azpimarratu bezala. “Horrelako batxilergoa eskaintzen duen D ereduko ikastetxe bakarra izanda, Hezkuntza Departamentuak lagun-tzea espero dugu, ze orain dagoen espazioa ez da nahikoa: ezin ditugu gauzak elkarrekin egin, taldeka lan egin behar dugu eta espazio txikietan banatuta”. Zailtasunak zailtasun, merezi izan duen lana dela ere argi dauka irakasleak. “Iristen da eguna, eta publikoak duen erantzuna eta ikasleek nola bizi duten ikustean dena ahazten zaigu”.

PSINKOMUNIKATUAK

Gaur, 20.30ean, Barañaingo Auditorioan. Sarrerak 4 euroren truke lortu daitezke, bai Auditorioaren webgunean baita leihatilan bertan ere. Sarrerak agortzeaz zeuden jada atzo.

Sinopsia. Erotetxe baten antza duen mikrokosmos berezi batean hainbat pertsonaia xeble biltzen dira. Gizartearen ikuspegi kritiko bezain ironiko batetik abiatuta hainbat istorio eta bizipen irudikatuko dira ikuslearengan hausnarketa eragiteko asmoz.

Sorkuntza kolektiboa. ‘Psinkomunikatuak’ Barañaingo Alaitz BHIko Arte Eszeniko, Musika eta Dantzako batxilergoko ikasle eta irakasleen azken sorkuntza kolektiboa da. 57 artista gaztek sormen eta hausnarketa prozesu baten emaitza eszenaratuko dute, musika, dantza eta an-tzerkiaren bitartez.

AZPIMARRATZEKO

ismael yagüe “sorkuntza prozesua konplexua izan da, baina merezi du”

Parte hartzen duten ikasle kopurua (57 ikasle) eta ikastetxearen baliabide mugatuak medio prozesua zaila izan bada ere, eguna iristerakoan “dena ahazten dela” azpimarratu du irakasleak.